

## “People Driven Innovation” nazioarteko konferentzia MUn

2011/03/22

Produktuak eta zerbitzuak diseinatzeko irizpideak jada ez dira teknologikoak eta merkadologikoak soilik. Gaur egun irizpide subjektiboagoek, sentimenez eta emozioek, protagonismoa hartu dute berezitasuna lortzeko bide gisa. Irizpide berri hauekin, produktuak ez ezik, pertsonentzako esperientziak diseinatu daitezke. Gainera, esperientzia hauek pertsonen gaitasunetan oinarrituta egon behar dira, edozein pertsonak gozatu ahal izateko.

Pertsonen gaitasunetan oinarritutako Esperientzien Diseinura zuzendutako produktuak edo zerbitzuak garatzeko ikuspegia berri samarra da. Hitzaldi honen nahia da profesionali jakintza arlo horien oinarriak hurbiltzea.

Konferentziaren helburu nagusiak hauek dira:

1. Enpresei “Esperientzien diseinuari” buruzko ikuspegi espezializatua ematea.
2. Enpresei “Pertsonen gaitasunetan oinarritutako Diseinuari” buruzko ikuspegi espezializatua ematea.
3. Bateko eta besteko ikuspuntuak alderatzea landutako gaiari buruzko zalantzak argitzea, hori guztia enpresek lan egiten duten merkatuan duten lehiakortasuna handitu ahal izan dezaten, beren produktu edo zerbitzuei berezitasun bat emanez, lehiakideen aurrean hobeto kokatu ahal izateko.

Horrenbestez, hitzaldiak bi bloke nagusi izango ditu: lehenengoan "Esperientzien diseinua" landuko da, eta bigarrenean "Gaitasunetan oinarritutako diseinua". Bloke bakoitza egun batean landuko da gaiarekin lotutako jarduerak batera egin ahal izateko.

Aipatutako gai bakoitza honela landuko da: hasieran, gaiari buruzko sarrera egin eta gero, aipatu gaietan esperientzia ezaguna duten hainbat profesionalen beren ikuspuntuak eta esperientziak azalduko dituzte; ondoren, mahai-ingurua egingo da gaiaren parte hartu duten hizlari guztiaren, aretoan landutakoari buruz dauden ikuspegi desberdinak partekatu ahal izateko eta ager daitezkeen zalantzak argitzeko.

Konferentzia hau urtero egin nahi da eta aurtengoa nazioarteko eta nazioko erakunde hauek babesten dute:

- Philips Design, Netherlands
- ONCE Fundazioa, Spain
- Fagor Etxetresnak taldea, Europe
- Design for all Foundation, Spain
- Mondragon Unibertsitatea, Spain

### Informazio gehiago



People Driven Innovation konferentzia